

EMAKUMEAK KIROLEAN

Zumaiako egoeraren diagnostikoa

2015eko abendua



Zumaiako Udala

Maider Alberdi Yeregi

AURKIBIDEA

1. Sarrera	7
2. Helburuak eta metodologia.....	9
3. Zumaiako Kirol arloan emakumeen egoeraren azterketa.....	13
3.1. Zumaiako Kirol Patronatua.....	13
3.1.1. Egitura.....	13
3.1.2. Udal Instalazioak.....	17
3.1.3. Diru laguntzak.....	21
3.1.4. Lengoia.....	21
3.2. Eskola Kirola.....	23
3.2.1. Egitura.....	23
3.2.2. Eskola Kirolaren inguruko pertzepzioak.....	27
3.3. Errendimenduko Kirola.....	30
3.3.1. Elkartek, lizentziak eta modalitateak.....	30
3.3.2. Elkartetako zuzendaritza.....	34
3.3.3. Emakumeen kirol egoerari buruzko pertzepzioak.....	36

3.4. Aisialdiko Kirola.....	40
3.4.1. Abonatuak.....	40
3.4.2. ZKP eskaintzen dituen jarduerak.....	42
3.4.3. Kiroldetik instalazio libreen erabilera.....	46
3.4.4. Kiroldetik kanpoko egiten diren jarduerak.....	47
4. Denboraren antolaketa.....	51
5. Ondorioak.....	55
6. Bibliografia.....	59

TAULA ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

Taulak:

1. Proiektuan erabilitako informazio bilketaren teknikak.....	12
2. Kirol Patronatuko eta kiroldegiko langileak.....	13
3. Herriko instalazioak.....	17
4. Kiroldegiko instalazio espezifikoak.....	17
5. Futbol zelaiko instalazio espezifikoak.....	19
6. Itsas kiroldegiko instalazio espezifikoak.....	20
7. Eskola Kiroleko jardueren eskaintza.....	24
8. Jarduera bakoitzeko haurren parte hartzea.....	25

9. Kirol Elkartetako lizentzia kopurua.....	30
10. Kategoria arteko talde kopuruen arteko konparaketa.....	33
11. Kirol elkartetako zuzendaritzen osaketa.....	35
12. Kiroldegiak eskaintako jarduerak eta partaidetza.....	43
13. Udako jardueren eskaintza eta parte hartzea.....	44
14. Kiroldegiko instalazio libreen erabilera.....	46

Irudiak:

1. Emakumeen funtzioen banaketa.....	14
2. Gizonen funtzioen banaketa.....	14
3. Emakumeek betetzen dituzten lanpostuak.....	15
4. Gizonek betetzen dituzten lanpostuak.....	16
5. Herri lasterketarako egindako kartela.....	22
6. Zakila birarako egindako kartela.....	22
7. Haurren parte hartzea eskainitako jardueretan.....	26
8. Federatu lizentzia kopurua sexuaren arabera.....	31
9. Lizentzia kopurua kirol modalitatea eta sexuaren arabera.....	32
10. Emakumeen lizentzia kopuruaren banaketa.....	32

11. Gizonen lizentzia kopuruaren banaketa.....	33
12. Zuzendaritzetako ehunekoak sexuaren arabera.....	34
13. Zuzendaritza bakoitzeko kopuruak sexuaren arabera.....	35
14. Abonatu kopurua sexuaren arabera.....	40
15. Abonatu kopurua adina eta sexuaren arabera.....	41
16. Abonatuak eta parte hartzea sexuaren arabera.....	42
17. Emakumeen parte hartzea.....	44
18. Gizonen parte hartzea.....	45
19. Jardueretako parte hartzea sexuaren arabera.....	45

1. Sarrera

Kirol arloan emakumearen presentzia pixkana handitzen joan da, baina oraindik gizonezkoena baino txikiagoa da. Ulertzekoa da datu hau, gaur egungo sistemari eta gizarte egiturari erreparatuta. Gizarteko alor guztietan bezala, emakumeak trabak ditu kirola egiterako orduan ere, traba horien sorburuan sistema patriarkala kokatzen delarik. Sistema patriarkalak oinarrian dituen balore eta harremanen sistemak emakumeon zapalkuntza dakar, zapalkuntza hori gizarteko arlo guztietan presente egonik, baita kirolean ere.

Baina berdintasuna lortzera bidean pausu batzuk eman dira jadanik. Lege, gida, konbentzio eta plan ezberdin asko plazaratu dira erakunde ezberdinetatik. EAEn Emakundek eginiko lanak aukera zabala eskaintzen du. Emakunde sortu zenetik (1988) emakumeak gizarteko esparru guztietan duen presentzia handitu eta parte hartzea indartzeko lana egin du. Bide horretan, EAEko gizon eta emakumeen berdintasunerako plan ezberdinak aurkeztu ditu, erakunde publikoek sustatu behar dituzten lan ildoak ezarriz.

Testuinguru honi lotuta doaz Zumaiako Udalak azken urteetan aurrera eraman dituen lan ildoak. 2010. urtean osatu zen Zumaiako Gizon eta Emakumeen I. Berdintasun Plana. Bertan lau urtetan garatu beharreko berdintasun politikak eta gizarte esparru ezberdinetarako helburuak zehaztu ziren. Kirol eremuaren kasuan bi ardatz nagusi banatu ziren: zehar lerro gisa, kirol arloaren kudeaketan genero ikuspegia txertatzea eta emakumeen ahalduntzeari begira, kirol elkarten zuzendaritzetan emakumeen presentzia indartzea eta emakume kirolarien presentzia esparru publikoan ikusaraztea eta indartzea.

2014an amaitu zen I. Berdintasun Plana, baina amaitu aurretik II. Berdintasun Plana osatzeari ekin zion. Lehenengo planaren baloraziotik abiatuta osatu zen orain indarrean dagoen plana. Bertan, helburu ezberdinak planteatzen dira eta horretarako burutu beharreko ekintza plana. Ekintza plan horietan esparru ezberdinak hartzen dira kontuan. Kirolaren esparruan, hainbat ekintza planteatzen dira helburu ezberdinak lortzeko. Hezkidetzak lantzeko, eskola kiroleko teknikariei genero ikuspegiak lan egiteko jarraibideak eskainiko zaizkie. Emakumeen parte hartze sozio-politikoak sustatzeko,

berriz, kirol erakundeetako zuzendaritzetan emakumezkoen presentzia sustatzeko neurriak hartuko dira; emakumeek kirola egiteko dituzten baldintzak eta beharrak aztertuko dira eta emaitzen arabera, beharrezko neurriak hartuko dira; emakumeen kirol praktika ezagutarazten lagunduko duten ekintzak antolatuko dira. Balio aldaketa emateko, kirol elkarteei berdintasun planaren berri emango zaie euren ekimenetan ikuspegi hau txerta dezaten eta genero rolak zalantzan jarritz, esparru maskulinizatu (kirola) edo feminizatueta berdintasunezko parte hartzea sustatzen duten ekintzak egitea bultzatuko da.

Ekintza plan horren barruan kokatzen da ondorengo diagnostiko hau. Planean aipatzen den bezala, emakumeen kirol baldintzak eta beharrak zein diren ezagutzera begira egin den azterlana.

2. Helburuak eta metodologia

Helburuak

Diagnostiko honen helburu nagusia **emakumeak kirol arloan duen egoera ezagutzea** da. Baina helburu orokor honen baitan, helburu zehatzago batzuk ere lortu nahi dira, diagnostikoa bera aberastu eta aurrerago planteatu daitezkeen interbentzio programei begira baliagarriak izan daitezkeen datuak lortu asmoz:

- Emakume kirolarien bizipenak ezagutu
- Denboraren antolaketaren ikuspegia aztertu, parte hartzean duen eragina ikusteko
- Emakumeek egiten dituzten jarduera motak zeintzuk diren ezagutu
- Adinaren arabera dauden ezberdintasunak aztertu
- Erakundeetako erabakiguneetan emakumeek duten presentzia ezagutu
- Jarduera fisikoa eta kirolaren promozioa eta honen publizitatea garatzeko moduak ezagutu

Emakumeak kirol arloan bizi duen errealitatea modu oso eta integral batean ezagutzeko kirol arloak barnebiltzen dituen esparru ezberdinak hartu behar dira kontutan. Horretarako, jarraian eremu hauek aztertu dira:

- Kirol Patronatua
- Eskola Kirola
- Errendimenduko kirola
- Aisialdiko kirola

Eremu hauez gain, emakumeen esperientziak eta faktore ezberdinek (denbora, jarduera eta adina) nola eragiten duten aztertzeko atal espezifiko bat landu da.

Metodologia

Diagnostikoak dituen helburuak kontutan izanda, ikerketa ekintza parte hartzailea (I.E.P) erabili da.

Metodologia honen baitan, datu kuantitatibo zein kualitatiboak eskuratu dira. Pisu handiagoa hartuko dute datu kualitatiboek, kirol arloan murgilduta dauden (erakundeak, parte hartzaileak, gurasoak...) pertsonen iritzia eta sententzioak jasotzeko eta datu kuantitatiboek eman ezin duten informazioa jaso eta genero arteko desberdintasunetan sakontzeko. Baina, datu kuantitatiboek datu kualitatibo guzti horietatik ateratako informazioa indartzeko eta justifikatzeko balio dezakete, baita datuak testuinguru batean kokatzeko ere.

Datu kuantitatiboak lortzeko alde batetik, **datu bilketa** egingo da. Honen bidez, alde aurretik eskuratu daitezkeen datuak bildu dira, hala nola, jarduera eskaintza, abonatuak, federatuak. Bestetik, **inkestak** ere pasa dira datu zehatz batzuk lortzeko. Horrela, eremu bakoitzaren erradiografia osatuko dugu, bakoitzaren errealitate objektiboa ezagutzeko eta inkesten bidez, sakonago aztertu beharreko gai edo aspektuak identifikatzen saiatuko gara.

Behin, informazio orokorra eskuratuta eta egoeraren oinarriak ezarrita teknika kualitatiboak landu ditugu, teknika hauetan gehiago sakonduz. Kasu honetan, **elkarrizketa sakonak** eta **eztabaida taldeak** erabiliko ditugu.

Elkarrizketa sakonak, datu kuantitatiboekin osatutako egoeraren oinarri horretan sakontzeko erabili ditugu. Horretarako, eremu bakoitzeko pertsona erreferenteak edo giltzarriak elkarrizketatuko ditugu beraien ikuspegia ezagutzeko, hala nola, Patronatuko, Eskola Kiroleko, kirol klubetako eta aisialdiko kirola egiten duten pertsonak.

Azkenik, eztabaida taldeak erabili ditugu. Oso interesgarriak izan daitezke dinamika hauetatik jasotako datuak, norberaren iritzia besteekin konpartitzen baitira eta ikuspegi ezberdinak eztabaidatzeaz gain, ideia nagusiek indarra hartu dezakete. Alde

batetik, kirolari federatuekin osatuko dira eztabaida taldeak. Errendimenduko kirolak ezaugarri maskulino indartsuak erreproduzitzen ditu eta beraz, interesgarria eta ezinbestekoa da emakumeen esperientziak eta ikuspegiak ezagutzea, aurrera begira pausuak ezartzerakoan, eta emakumeak beraien egoeraz jabetu eta ahalduntzeko baliogarriak izango direlako. Bestalde, adin tarte ezberdineko emakumeekin egingo dira eztabaida taldeak. Eztabaida hauek emakumeen bizipenak ezagutzeko baliatuko ditugu, denboraren antolaketa duen eraginean sakondu eta adinaren arabera eman daitezkeen ezberdintasunak ezagutzeko.

Guzti honekin, hasieran genuen oinarri objektiboan sakondu eta ideia edo datuen atzean egon daitezkeen arazoak identifikatuko ditugu.

Ondorengo taulan aipatutako bilketa sistemak eta edukiak azaltzen dira:

Taula 1. Proiektuan erabilitako bilketa sistemaren teknikak

	TEKNIKA	KOP.	INFORMATZAILEA	EDUKIA
DATU KAUNTITATIBOAK			Kiroldegiko gerentea eta Kirol teknikaria	Patronatuaren egitura; Kirol instalazioak; kiroldegiko jardueren eskaintza, abonuak eta kiroldegiko jardueren partaidetza; lizentzia kopurua eta talde federatuena; kirol arloko aurrekontua; diru-laguntzen irizpideak; elkarteei emandako diru-laguntzak.
			Kirol Elkarteetako zuzendaritza	Zuzendaritzetako datuak
			Ikastetxeetako koordinatzaileak	Eskola kirolareko jardueren eskaintza eta partaidetza kopurua
DATU KUALITATIBOAK	Inkestak	1	Ikastetxeetako haurren gurasoak	Eskola Kirolaren inguruko iritzia
		1	Herriko emakumeak	Denboraren antolaketaren inguruko informazioa; egiten duten jarduera fisiko mota eta egitearen helburua
	Elkarrizketa erdi-egituratuak	1	Kirol Teknikaria eta kiroldegiko gerentea	Udal instalazioen kudeaketa; kiroldegiko espazioen erabilera; diru laguntzen irizpideak; jardueren eskaintzaren irizpideak; kirolaren promoziorako bideak; elkarteekin komunikazioa.
			Ikastetxeetako koordinatzaileak	Eskola kirolaren egitura eta helburuak; jardueren eskaintzaren irizpideak; parte hartzearen inguruko iritzia.
			Kirol Elkarteak	Zuzendaritzetako egitura; kirol modalitatearen promozioa; emakumeen parte hartzea errendimenduko kirolean
	Eztabaida taldeak	1	Errendimenduko kirola	Adinak; oztopoak edo sumatutako diskriminazioa; emakume eta gizonen desberdintasunak aukeraketan eta kirol-uztean; inguru sozialaren laguntza; instalazioak.
		1	Denboraren antolaketa	Denboraren antolaketa jarduera fisikoa egiteko aukeran duen eragina; adinaren arabera dauden ezberdintasunak; egiten diren jarduerak eta arrazoiak

ITURRIA: Norberak egina

3. Zumaiako kirol arloan emakumeen egoeraren azterketa

Zumaiako udalerriak 9798 biztanle ditu, 4937 emakume eta 4861 gizon. Emakume gehiago bizi badira ere, aldea ez da handia eta biztanleriaren erdia emakumea eta erdia gizona dela esan daiteke.

3.1. Zumaiako Kirol Patronatua

3.1.1. Egitura

Zumaiako Kirol Patronatua 11 pertsonak osatzen dute. Alkatea eta kiroletako zinegotziak daude, alde batetik. Bestetik, kirol patronatuko bi langileak daude, kirol teknikaria eta kiroldegiko gerentea. Azkenik, bi ikastetxeetatik zuzendari bat eta kirol elkarte guztien ordezkari gisa kirol elkarte bateko kide bat ere Kirol Patronatuko kideak dira.

Aipatu bezala, Patronatuko langileak bi dira. Patronatuaren esku dago Zumaiako Kiroldegia kudeaketa, baina kiroldegiko langileak enpresa baten bitartez kontratatzen dira, BTX Sport enpresaren bitartez, hain zuzen ere. Guztira, 22 langile daude. Horietatik, 15 emakumeak dira eta 7 gizonezkoak.

Kirol Patronatuko kideak eta kiroldegiko langileak guztira 33 dira eta ondorengo egitura osatzen dute.

Taula 2. Kirol Patronatu eta kiroldegiko langileak


	EMAKUMEAK	GIZONAK
Ordezkaritza politikoa	2	4
Patronatuko langileak	0	2
Beste erakundeetako ordezkariak*	0	3
BTX Sporteko pertsonala	15	7
GUZTIRA	17	16

*Ikastetxeetako zuzendariak eta Kirol Elkarteetako ordezkaria. Azken hau urtero aldatzen joaten da.

ITURRIA: Norberak egina

Taulan ikus daitekeenez, emakume eta gizonen kopurua oso antzekoa da. Pertsona bakoitzaren funtzioetan erreparatzean, ordea, ezberdintasunak daude. Alde batetik, Kirol Patronatuko batzordeko kide gehienak gizonak dira. Bestetik, azpikontrataturako langile gehienak emakumeak dira, bikoitza hain zuzen ere. Ondoren, emakume eta gizonen lanpostuen arteko ezberdintasuna ikus daiteke.


Irudia 1. Emakumeen funtzioen banaketa



ITURRIAK: Norberak egina

Emakumeek bi funtzio betetzen dituzte. Gehiengoa (%88) BTX Sport enpresatik azpikontrataturako langileak dira. Gainontzekoak (%12) Kirol Patronatuko Batzordeko ordezkari politikoak dira.

Irudia 2. Gizonen funtzioen banaketa




ITURRIA: Norberak egina

Gizonen kasuan ere, gehiengoa da BTX Sport enpresak azpikontrataturako langileak dira, baina emakumeen kasuan baino txikiagoa da portzentaje (%44). Gizonek funtzio gehiago betetzen dituzte. Zuzendaritza batzordean, esaterako, emakumeena baino handiagoa da portzentaje (%25). Horrez gain, patronatuko langileak eta beste erakundeetako ordezkariak ere gizonak dira. Aipatzekoa da patronatuko bi langileak gizonezkoak direla. Hauek dira egunerokotasunean Zumaiako kirol eskaintzaz eta kiroldegiko kudeaketaz arduratzen direnak. Beste erakundeetako ordezkariak ere gizonezkoak dira, baina erakunde bakoitzean dagoen zuzendaritza batzordearen araberakoa da hau.

Kiroldegiko langileengan dagokionez (BTX Sport enpresak azpikontrataturakoak), emakume zein gizonen funtzioak ezberdinak dira. Emakumeenak monitorea, garbiketa eta administrazioa dira. Soroslearen kasuan, sorosle lanetan bakarrik aritzen den pertsona adierazten da datuetan. Baina kontuan izan behar da, hainbat monitorea ere txandaka funtzio hau betetzen dutela zenbait ordutan. Beraz, emakumeak ere egiten dituzte sorosle lanak.

Irudia 3. Emakumeek betetzen dituzten lanpostuak



ITURRIA: Norberak egina

Gizonak, aldiz, monitore, mantenu eta sorosle lanetan aritzen dira.

Irudia 4. Gizonek betetzen dituzten lanpostuak



ITURRIA: Norberak egina

Lanpostu gehienak estereotipo sozialen arabera banatuta daudela erakusten dute datu hauek. Emakumeak dira garbiketa eta administrazioaz arduratzen direnak. Gizonak, aldiz, kiroldegiko mantenuaz arduratzen dira. Aipatzekoa da, ordea, monitore gehienak emakumeak direla. Kasu honetan, estereotipoen banaketa ez da horren garbi ikusten. Gainera, monitore bakoitzak ematen dituen jardueretan ere banaketa ez da horren garbia. Badaude emakumeak cycling eta crossfit bezalako jarduerak gidatzen dituztenak. Eta Yoga, esaterako, gizon batek gidatzen du.

Azkenik, egitura osoari begiratu ere, estereotipoen banaketa ikus dateke. Gizonak ordezkari politikoan, teknikari eta gerente lanetan eta bestelako erakundeetan ordezkari lanetan dihardute gehienbat. Emakumeak, aldiz, azpikontratatuak langileak dira gehienak.

3.1.2. Udal instalazioak

Zumaiako kirol instalazioen eskaintza zabala da. Instalazio ia gehienak udalarenak dira, baina batzuk elkarteek beraiek kudeatzen dituzte. Ondorengo taulan herrian dagoen kirol ekipamendua azaltzen da:

Taula 3. Herriko instalazioak

INSTALAZIOA	KUDEAKETA
Kiroldegia	Kirol Patronatuaren esku
Itsas kiroldegia	Kirol elkarteen esku
Futbol zelaia	Kirol elkarteen esku
Surf lokala	Kirol elkarteen esku
Oikiako frontoia	Kirol Patronatuaren esku

ITURRIA: Norberak egina

Zumaiako kirol jarduera gehiena kiroldegian egiten da. 1984 urtean inauguratu zen eta 1999an handitu egin zuten igerilekua, gimnasioa eta beste hainbat gela eginez. Gaur egun dituen kirol instalazio espezifikoak honakoak dira:

Taula 4. Kiroldegiko instalazio espezifikoak

INSTALAZIOAK	KOPURUA	
Pista estalia	1	
Tatami	1	
Erabilera anitzeko gela	2	
Ciclo indoor gela (62m ²)	1	
Gimnasioa (100m ²)	1	
Sauna	2	
Hidromasaje gela	2	
Masaje gela	1	
Aldagelak	12	
	<i>Bazkide eta taldeentzat</i>	8
	<i>Igerilekua</i>	2
	<i>Gorputz tratamenduko gela</i>	2
Estalitako igerilekua	2	
Solariuma	1	
Teniseko pista	1	
Padel pista (20x10 m)	2	
Rokodromoa	1	

ITURRIA: www.zumaia.eus/eu/zumaiian-bizi/kirol-azpiegiturak/kiroldegia

Kiroldegia Zumaiako Kirol Patronatuak kudeatzen du. Kiroldegiak dituen instalazio guztien kudeaketa Kirol Patronatuaren esku dago, baina hainbat kirol elkartek ere beraien jarduna kiroldegian bertan burutzen dute. Kasu hauetan, kiroldegiko hainbat espazio elkarrekin uzten zaizkie eta ordutegi baten arabera erabiltzen dituzte instalazio horiek. Horrez gain, Zumaiako bi eskolek ere kiroldegiko zenbait instalazio erabiltzen dituzte.

Alde batetik, kirol pista estalia eskolek erabiltzen dute goizez eta Pulpo Kirol elkarteak, berriz, arratsaldean. Pista estali hau 44x27 metrokoa da eta 400 pertsonentzako lekua duen harmailak ditu. Herritarrek ere erabil dezakete instalazio hau, baina libre dagoen orduetan bakarrik eta ondorioz, ia ez dute erabiltzen.

Bestetik, Tatamia Kodaore Judo eta Taekwondo Koryo taldeek erabiltzen dute eta baita eskolek ere. Tatamia 53m² azalerakoa da eta klaseak emateko erabiltzen da.

Kiroldegiko instalazio guztiak erabili ahal izateko sarrera nagusitik sartu behar da eta bertatik iristen da instalazio guztietara. Aldagelak solairu nagusian edo beheko pisuan aurkitzen dira. Pisu nagusian bi aldagela daude, igerilekura sarrera zuzena dutenak. Gainontzekoak beheko solairuan aurkitzen dira. Alde batetik, elkarrekin erabiltzen dituzten 8 aldagela daude. Entrenatzera edo partidua jokatzera etortzen diren taldeek erabiltzen dituzte gehienbat. Bestetik, hidromasajea eta sauna duten aldagelak daude.

Kiroldegiak dituen erabilera anitzeko bi gelak eta ciclo indoor gela eskaintzen diren ikastaroak egiteko erabiltzen dira, hala nola, cycling, GAP, pilates, jump, etab. Erabilera anitzeko gelak kiroldegiaren goiko pisuan aurkitzen dira, Gimnasioaren alboan, eta kiroldegiko sarrera nagusitik sartzen da bertara. Batak 60m² ditu eta besteak 90m² eta bertan, beharrezko material anitza aurkitzen da. Ciclo indoor gela beheko solairuan aurkitzen da, 62m² ditu eta 30 bizikletarekin ekipatuta dago.

Goiko solairuan, aipatu bezala, Gimnasioa kokatzen da. 100m² ditu eta muskulazio tresnak zein makina aerobikoak aurkitzen dira bertan. Kiroldegiko ordutegiaren barruan libreki erabili daitezkeen espazioa da.

Igerilekuei dagokionez, bata 25 m x 12,5 m azalerakoa eta 1,40-1,80 metro bitarteko sakonerakoa da. Bertan igeriketa ikastaroak, kirol entrenamenduak eta igeriketa librea egiten dira. Bestea txikiagoa da 12,5m x 4,5m azalera eta 0,34-0,70 metro bitarteko sakonerakoa. Haurren igerilekua da.

Kiroldegiaren kanpoaldean teniseko pista eta padeleko bi pistak aurkitzen dira. Hona sartzeko, ordea, kiroldegira sartu behar da eta bertatik iristen da. Pista guztiak belar artifizialekoak dira. Teniseko pista 36 x 18,59m tamainakoa da. Padeleko pistak, berriz, 20x10m tamainakoak dira. Erabilera libreko espazioak dira bi hauek eta kiroldegiko ordutegiaren barruan erabili daitezke.

Horrez gain, futbol zelaia ere Zumaiako kirol elkarte baten esku dago, Zumaiako Futbol Taldearen esku. Futbol zelaiaren azpiegiturak honakoak dira:

Taula 5. Futbol zelaiko instalazio espezifikoak

AZPIEGITURA	KOPURUA
Futbol zelaia (100x60 m)	1
Harmailak (250 eserleku)	1

ITURRIA: Norberak egina

Kirol Elkarteaz gain, eskolek ere erabiltzen dute instalazio hau. Gainera, futbol zelaia alokatzeko aukera ere badago, baina libre geratzen den orduetan bakarrik.

Kiroldegiaz gain, Itsas Kiroldegia ere badu Zumaiak. Instalazio hau, ordea, hiru elkarteren esku dago Itxas Gain Kirol Elkarte, Zumaiako Telmo Deun Arraun Elkarte eta Olarru Sub Elkartearen esku. Elkarte hauek arduratzen dira kudeaketaz eta erabilera ere elkarte hauetara mugatzen da. Kirol Patronatuak momentu puntualetan soilik erabiltzen du.

Hauek dira Itsas Kiroldegiaren instalazio espezifikoak:

Taula 6. Itsas kiroldegiko instalazio espezifikoak

INSTALAZIOA	KOPURUA
Piragua fosa (11,5m)	1
Arraun fosa (14,9m)	1
Gimnasioa	2
Aldagelak	5
Gordelekuak	2

ITURRIA: Norberak egina

Oikiako frontoia ere Kirol Patronatuaren kudeaketaren menpe dago. Erabilera librea du, baina bertako eskolako haurrek ere erabiltzen dute. Herri Eskolako frontoia, aldiz, eskola eremuan dagoenez, ez dago Kirol Patronatuaren esku. Hala ere, eskolako orduetatik kanpo, pilota elkarteak erabiltzen du, alokatzeko aukera ere badago eta herritarren erabilera librerako tartek ere errespetatzen dira.

Herri Eskolako instalazioekin jarraituz, patronatuak kudeatzen dituen jarduera batzuk bertako gimnasioan egiten dira, kiroldegian dagoen espazio faltaren ondorioz. Horrez gain, Maria eta Jose ikastetxeko instalazioak ere erabiltzen dira.

Azkenik, Surf lokala ere badago. Lokala Zumaiako Itzurun Surf Kirol Elkarteak kudeatu eta erabiltzen du. Bertan, bulegoa, materiala gordetzeko lekua eta bi aldagela dituzte.

Udaleko kirol instalazioez gain, badaude beste zenbait eremu jarduera fisikoa egiteko erabiltzen direnak. Pasealeku ugari daude herrian zehar, ibaiaren ondotik doazenak eta baita Santio hondartzaraino doana ere. Bestalde North Walking zirkuitu bat eta herriko mapa bat ere badago osatuta toki ezberdinen arteko distantziak markatzen dituenak, korrika edo oinez egiteko. Frontoi irekiak ere badaude, erabilera librekoak direnak. Horrez gain, eskalatzeko lokal bat ere badago herrian, eskalatzen ibiltzen direnek hartutakoa eta kudeatutakoa.

Kirol Patronatuko kirol teknikari eta gerenteak, herria kirol instalazio bihurtzeko asmoa ere aipatu dute. Herriko puntu ezberdinetan ariketa fisikoa egiteko elementuak jartzeko asmoa dago, bakoitzak modu librean erabili ditzan.

3.1.3. Diru laguntzak

Zumaiako Kirol Patronatuaren urteko aurrekontua 1.059.000 eurokoa da. Aurrekontu hau bide ezberdinetatik lortzen da eta urtero aldatzen joaten da.

Aurrekontu guzti horretatik zati bat kiroldegiko gastuetara, pertsonalera eta inbertsioetara bideratzen da. Aurrekontu horretatik, 170.500 euro bideratzen dira diru laguntzetara.

Diru laguntza horretatik 90.000 euro kirol elkarteei bideratzen dira. Urtero kirol elkarteek beraien datuak eta kopuruak aurkezten dituzte eta ezarritako puntuazio sistema baten bitartez banatzen da aurrekontua.

Bestalde, elkarteek antolatzen dituzten bestelako ekimen edo probengatik, eskola kirolari, eliteko kirolariei, ezintasun bat duenei ere diru laguntzak ematen zaizkie. Kasu honetan, diru laguntzen aurrekontutik 80.500 euro bideratzen dira laguntza hauetarako. Banaketa hau modu subjektiboan egiten da, ez dago inolako puntuazio sistemarik. Patronatuko kideen esanetan, banaketa hau zehazteko asmoa dago, baina puntuazio horretan sartu beharreko puntuak ezartzea zailagoa dela diote.

Puntuazio sistemari dagokionez, emakumeen kirola bultzatzeko asmoarekin garai batean emakumeen lizentzia kopuruak gehiago puntuatzen zirela aipatu dute. Baina diskriminazio positibo handiegia egiten zela aipatu dute, desoreka handiak sortuz. Gainera, beraien ustetan, gehiago puntuatzeak ez du emakumeen parte hartzea landuko edo sustatuko denik bermatzen.

3.1.4. Lengoaia

Zumaiako Kirol Patronatuak argitara ematen duen dokumentazioan kontutan hartzen dute erabiltzen den mintzaira eta iruditegia.

Argitaratzen dituen dokumentuetan @ karakterea erabiltzen da etengabe eta banaketa sexista egitea ekiditen da.

Bestalde, edozein kartel edo irudi ateratzerakoan emakumeak ateratzen direla bermatzen dute.

Irudia 5. Herri lasterketarako egindako kartela



ITURRIA: Zumaia Kirol Patronatua

Irudia 6. Zakila birarako egindako kartela



ITURRIA: Zumaia Kirol Patronatua

3.2. Eskola Kirola

3.2.1. Egitura

Zumaiako Eskola Kirola Kirol Kontseiluaren bidez antolatzen da. Kirol Kontseiluan honela osatzen da:

- Zumaiako ikastetxe bakoitzeko 2 ordezkari (bat koordinatzailea izango da).
- Udal Kirol Patronatuko 2 ordezkari.
- Guraso Elkarte bakoitzeko ordezkari bat.

Kirol Kontseilu honen helburua Eskola Kiroleko jardueren programa bidez, Zumaiako ikasle guztiak kirola egiten hastea da, prestakuntza epe luzeko prozesu gisa landuta eta kirolaren bidez heztea lortuz. Bertan erabaki orokorrak hartzen dira, Eskola Kirolaren norabidea markatuko dutenak.

Egunerokoan batzorde bat arduratzen da guztiaren gestioaz, Kontrol Organoa. Honela osatzen da organo hau:

- Kirol Patronatuko ordezkariak
- Ikastetxeetako bi koordinatzaileak
- Guraso Elkarteko ordezkaria
- Kirol Elkarte bat (puntualki)

Zumaiako Eskola Kiroleko programa bakarra da eta Zumaiako bi ikastetxeek hartzen dute parte, Zumaiako Herri Eskolak eta Maria eta Jose Ikastetxeak. Bietan eskaintza berdina egiten da eta batera funtzionatzen dute. Eskola Kiroleko programa aurrera eramatearen ardura nagusia ikastetxeek dute, baina eskaintza Zumaiako kirol elkarteen laguntzaz egiten da. Kirol elkarteek ere konpromisoa hartzen dute eta elkarlanean egiten da eskaintza. Eskaintzen den kirol modalitate bakoitzeko kirol elkarteek betebeharrak batzuk dituzte kirol modalitate hori aurrera eramaten denean, hala

nola, Eskola Kiroleko jardueretan parte hartzea, monitoreak izatea, epaile lanak betetzea, etab.

Kasu honetan, benjamin (9-10 urte) eta alebin (10-12 urte) kategorietan garatzen da Eskola Kiroleko programa.

Hauek dira Eskola Kiroleko programan eskaintzen diren jarduerak kategoriaren arabera:

Taula 7. Eskola Kiroleko jardueren eskaintza

	BENJAMINAK	ALEBINAK	
IKASTAROAK	Piraguismoa	Piraguismoa	
	Xakea	Xakea	
TXAPELKETAK	Eskubaloia	Eskubaloia	
	Areto Futbola	Zortziko Futbola	
	Saskibaloia	Saskibaloia	
	Mendizaletasuna	Mendizaletasuna	
	Atletismoa	Atletismoa	
	Esku pilota	Esku pilota	Esku pilota
			Pala (neskentzat)
			Mahai Tenisa
			Piraguismoa
		Txirrindularitza	

ITURRIA: Norberak egina

Eskola Kirolean dagoen parte hartzea oso handia da orokorrean. Guztira ia bi ikastetxeetako ikasle guztiek hartzen dute parte. Oso ikasle gutxi dira inongo jardueretan parte hartzen ez dutenak. Guztira 474 hurrek parte hartzen dute, 220 neska eta 254 mutilek. Beraz, neska eta mutilen parte hartzea oso antzekoa da, ez dago alde handirik parte hartze orokorrean.

Taulan agertzen den bezala, alde batetik, piragua eta xake ikastaroak eskaintzen dira benjamin eta alebin kategorietan. Bestalde, txapelketa edo jarduera ezberdinak ere eskaintzen dira.

Jarduera eta txapelketa horietako parte hartzea aztertzen hasita, alde handiak ikusten dira jarduera batetik bestera. Jarraian benjamin eta alebin kategorietan jarduera bakoitzean dagoen parte hartzea adierazten da:

Taula 8. Jarduera bakoitzeko haurren parte hartzea

	Neskek			Mutilak			Guztira
	Benjaminak	Alebinak	Guztira	Benjaminak	Alebinak	Guztira	
Eskubaloia	92	68	160	99	87	186	346
Areto futbola/Zortziko futbola	66	58	124	84	82	166	290
Saskibaloia	91	71	162	93	82	175	337
Mendizaletasuna	87	64	151	94	76	170	321
Atletismoa	48	10	58	45	22	67	125
Esku pilota	4	1	5	32	9	41	46
Pala	-	6	6	-	-	-	6
Mahai Tenisa	-	14	14	-	32	32	46
Piraguismoa	-	3	3	-	17	17	20
Txirrindularitza	-	3	3	-	10	10	13
Zesta	-	0	0	-	11	11	11

ITURRIA: Norberak egina


Parte hartze handiena saskibaloia, eskubaloia eta futboleant dago. Ia ikasle denek parte hartzen dute jarduera hauetan, bai neska bai mutil. Gainerako jardueretan dagoen parte hartzea askoz txikiagoa da. Mendizaletasunean ere kopuruak oso altuak dira, baina Herri Eskolan Eskola Kirolean parte hartzen duten haur guztiei egiten zaie gonbitea, nahiz eta gero parte hartu ez. Orokorrean, taldekako kirolak dira parte hartze handiena dutenak eta bakarkako kirolean, aldiz, haur gutxiagok parte hartzen dute.

Bestalde, Eskola Kirolean parte hartzen duten ikasle ia denek jarduera batean baino gehiagotan parte hartzen dute. Kasu honetan, ez dago alde handirik neska eta mutilen artean. Orokorrean, mutilek jarduera gehiago egiten dituzte, baina datuei begiratuta neskak ere joera hori daukate. Zenbait kasutan, alderantzizkoa ere gerta daiteke, hau da, maila batean neskek jarduera gehiagotan parte hartzea.

Jarduera bakoitzeko neska eta mutilen parte hartzea aztertuta, jarduera guztietan mutilen parte hartzea handiagoa da neskena baino, palaren kasuan izan ezik. Pala neskei zuzenduriko jarduera da eta mutilek ez dute parte hartzeko aukerarik. Aipatu bezala, jarduera guztietan mutilen parte hartzea handiagoa den arren, aldea oso txikia da ia

guztietan eta parte hartzea antzekoa dela esan daiteke.

Irudia 7. Haurren parte hartzea eskainitako jardueretan



ITURRIA: Norberak egina

Parte hartze handiena dagoen jardueretan (taldekako kiroletan) ez dago alde handirik neska eta mutilen parte hartzean. Alde handiena, areto futbolearen edo zortziko futbolearen (kategoriaren arabera) aurkitzen da.

Bakarkako kiroletan eta parte hartze txikiena duten jardueretan nabari da alderik handiena. Atletismoan, nahiz eta jarduerarik parte hartzaileen artekoa ez izan, neska eta mutilen arteko aldea ez da oso handia. Baina gainontzeko jardueretan aldea askoz nabarmenagoa da eta gehienetan oso neska gutxi parte hartzen dute. Esku pilota, txirrindularitza, piraguismoa eta zesta jardueretan askoz mutil gehiagok parte hartzen dute.

Ikastetxeen eskaintzaz gain, kirol elkarte batzuek Kirol Eskolak dituzte martxan edo kategoria hauetako haurrei beraien kirol modalitatean parte hartzeko aukera eskaintzen dute. Pulpo Kirol elkarteak eta Zumaiko Futbol Taldeak, esaterako, Kirol Eskolak dituzte. Pulpo Kirol Elkarteak alebinen kategorian eta Zumaiako Futbol Taldeak benjamin eta alebinetan. Itsas Gain K.E., Zumaiako Txirrindulari Elkarteak eta

Zumaiako Itzurun Surf Elkarteak kategoria hauetako haurrei eginiko eskaintza ere badute. Bestalde, Kodaore Judo eta Taekwondo Koryo taldeek ere, 5-12 urte bitarteko haurrentzat ikastaroak antolatzen dituzte.

Infantil kategoriatik (13-14) aurrera, kirol elkarteetan federatzeko aukera dute. Ia kirol elkarte guztietan infantil kategoriatik aurrera federatu egiten dira eta lehiaketetan parte hartzen dute. Askotan lizentziak Eskola Kirolaren barruan kokatzen dira, baina kirol elkarte bitartez egiten da eskaintza hori. Honen ondorioz, ikastetxeetan ez da ia eskaintzarik egiten, federatuta egotean ezin baitute bestelako txapelketan parte hartu. Zumaiak Herri Eskolako kirol koordinatzailearen arabera, bakarkako kirol modalitateak, minorizatuak direnak, eskaintzen dira, baina ikasleek ere ez dute eskaerarik egiten.

Horrez gain, kontuan izan behar dira kiroldegian bertan ere haurrentzat antolatzen diren jarduerak. Alde batetik, igeriketako ikastaroak eta ZUMBA eskaintzen dira neguan.

Bestetik, udan egiten den ikastaroen eskaintza Eskola Kirolaren barruan kokatzen da. Batzuk kirol elkarteekin batera antolatzen dira, hala nola, piragua, surfa, mendiko bizikleta eta arrauna. Beste batzuk (ZUMBA, igeriketa, multikirolak, tenisa eta patinak), aldiz, kiroldegiak berak eskaintzen ditu. Eskaintza honekin, eguraldiarengatik urteko beste egunetan egin ezin diren jarduerak bultzatu nahi dira.

Orokorrean, asko jaisten da parte hartzea, eskola garaiko jarduerekin konparatuz. Jarduera gehienetan mutil gehiagok parte hartzen dute, ZUMBA izan ezik. Kasu honetan, ez dago mutilik.

3.2.2. Eskola Kirolaren inguruko pertzepzioak

Argi dago Eskola Kirola oso garrantzitsua dela. Gurasoei pasatako inkestetan garbi ikusten da gurasoei oso garrantzitsua iruditzen zaiela Eskola Kirola, bizitza osasuntsua eraman eta kirola egiteko ohitura hartzeko, lagunarteko eta talde laneko baloreak ikasteko eta lagunak egin eta ondo pasatzeko.

Helburu hauek bat egiten dute Eskola Kirolak duen helburu orokorrarekin, kirol ezberdinak ezagutu eta parte hartzea baita bilatzen dena. Hala ere, guraso batzuen ustez

lehiakortasunari garrantzi handiegi ematen zaio gaur egun. Eskola Kiroleko koordinatzailearen esanetan, helburua parte hartzea bada ere, zaila egiten da lehiakortasuna guztiz baztertzea. Koordinatzaileek ahaleginak egiten dituzte parte hartzea sustatu eta lehia horri garrantzia kentzeko, baina askotan ez dira nahi bezalako emaitzak lortzen.

Jardueren eskaintzari dagokionez, egokia dela uste dute gehienek, kirol ezberdinak egiteko aukera eskaintzen delako eta modu horretan lagunekin kirola egiteko aukera dutelako. Gutxi batzuen ustez, ordea, eskaintza moldatu beharko litzateke. Alde batetik, lehiakorregia delako eta bestetik, eskaintzaren zatirik handiena baloidun kirolak direlako.

Koordinatzaileen esanetan, jarduera horiek herrian indar gehien dutelako aukeratzen dira, eta baita horiek aurrera eramateko espazio eta material egokia dagoelako. Horrez gain, herriko kirol elkarteek ere laguntza gehiago emateko aukera dago.

Zumaiako Eskola Kiroleko programan nesken parte hartzea handia dela uste dute bai gurasoek baita koordinatzaileek ere. Koordinatzaileen esanetan parte hartzea parekoa da neska eta mutilen artean. Neskak ere jarduera askotara apuntatzen direla aipatu dute, ez dutela beldurrik kirola egiteko.

Jardueren eskaintzak nesken parte hartzean duen eragina ez dago oso garbi. Batzuen ustez, eskaintza horrek ez dauka eraginik, denei irekita dagoelako, ezberdintasunik gabe, eta aukera ezberdina eta zabala dagoelako.

Beste batzuek, ordea, eragina daukala diote. Alde batetik, zenbat eta aukera gehiago parte hartzea handiagoa izango litzakeela uste dute. Bestalde, jardueren izaerarekin lotzen dute. Jarduera gehienak bortitzak direla, baloi kirol gehiegi egiten dela eta aukera zabalagoa izan beharko litzatekeela, etab.

Orokorrean, Eskola Kirolaren antolaketa egokia dela uste dute, parte hartzeko aukera hori bermatzen duelako. Baina batzuk aipatu dute badagoela zer hobetzeko, hala nola, talde mistoak egitea, entrenatzaileek formazio handiagoa izatea.

Antolaketa horretan, talde kirolak martxoan baino lehen egiten dira, ondoren alebin kategorian probintzietako txapelketa jokatzeko delako. Horrek, jardueren antolaketa mugatzeaz gain, eskola kirolaren helburu nagusia betetzea zailtzen duela aipatu du koordinatzaileetako batek. Txapelketa horretara joan beharrik gabe, jardueren eskaintza beste modu batera antolatzeko aukera legoke eta aukerak zabalduko lituzke.

Azkenik, espazioaren inguruan iritzi ezberdinak daude. Batzuen ustez ondo pasatzeko eta parte hartzeko nahikoa da gaur egungo espazioekin. Gainera, eskola egiten da eta haurrak espazio horretan eroso sentitzen dira. Beste batzuek, leku itxien falta aipatu dute, euria egitean bertan behera geratzen baitira jarduerak.

3.3. Errendimenduko kirola

3.3.1. Elkartek, lizentziak eta modalitateak

13 kirol modalitate egiten dira, bakoitza elkarte baten baitan. Herrian 1242 federatu lizentzia daude guztira, 335 emakumeena eta 907 gizonena. Hurrengo taulan Zumaian dauden kirol elkartek eta bakoitzaren lizentzia kopurua adierazten dira:


Taula 9. Kirol Elkartetako lizentzia kopurua

ELKARTEAK	MODALITATEAK	LIZENTZIA KOPURUA		
		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Zumaiako Olarru-Sub	Urpekaritza	7	57	65
Zumaiako Kirol Elkartea	Pilota	0	31	31
Inda Mendi Bazkuna	Mendia	74	142	216
Anade Ehiz eta Arrantza Elkartea	Ehiza eta Arrantza	3	43	46
Zumaiako Triatloi Taldea	Triatloia	2	27	29
Zumaiako Telmo Deun Arraun Elkartea	Arrauna	34	108	142
Zumaiako Txirindulari Elkartea	Txirindularitza	4	88	92
Zumaiako Futbol Taldea	Futbola	73	118	191
Pulpo Kirol Elkartea	Eskubaloia	102	115	217
Zumaiako Itzurun Surf Kirol Elkartea	Surfa	18	91	109
Itsas Gain Kirol Elkartea	Piragua	13	35	48
San Telmo Bela Elkartea	Bela	5	39	44
Zumaia Cuban Boxing	Boxeoa	0	13	13
GUZTIRA		335	907	1242

ITURRIA: Norberak egina

Gizonen lizentzia kopurua %73, emakumeen lizentzia kopurua baino askoz handiagoa da, %27. Lizentzia guztien hiru laurdenak gizonezkoenak dira gutxi gorabehera.

Irudia 8. Federatu lizentzia kopurua sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Biztanleria osotasunean hartuta %13a bakarrik dago federatuta. Sexuen arabera aztertuta, berriz, emakumeen %7a eta gizonen %19a dago federatuta.


Lizentzia gehien dituzten elkarteak Pulpo Kirol Elkartea eta Inda Mendi Bazkuna dira. Hauen atzetik, Zumaiaiko Futbol Taldea eta Zumaiaiko Telmo Deun Arraun Elkartea daude. Kontutan izan behar da, ordea, federatu lizentziak dituzten elkarte askok ez dutela errendimenduko kirolean parte hartzen edo lehiaketetan parte hartzen. Inda Mendi Bazkunaren kasuan, aisialdira edo kirol modalitatea egiteko aukera ematera bideratzen dute beraien jarduna. Kasu honetan aurkitzen dira Olarru-Sub, Anade Ehiza eta Arrantza eta San Telmo Bela Elkartea ere. Modalitate hauetan txapelketak egiten dira, baina noiz behinkakoak eta puntualak izaten dira.

Txirrindularitzaren kasuan, berriz, zikloturistak ere elkarte barruan federatzen dira eta beraz, datuen zati batek talde hau ordezkutzen du. Zikloturistek aisialdira bideratzen dute beraien jarduna, ez dira txapelketetan aritzen.

Beraz, errealitate hau kontutan izanda, errendimenduko kirolean parte hartzen duten elkarteetatik lizentzia gehien dituztenak, Pulpo Kirol Elkartea (217), Zumaiaiko Futbol Taldea (191) eta Zumaiaiko Telmo Deun Arraun Elkartea (142) dira, hurrenez hurren. Hiru elkarte hauetan dago lizentzia guztien %44, ia erdia, eta gizonen lizentzien %38 eta emakumeen lizentzien %62. Datu honek erakusten du, emakumeen lizentzia

gehien hiru kirol modalitate hauetan geratzen dela. Gehiago zehaztuz, Pulpo Kirol Elkartea (102) da lizentzia kopuru gehien dituen eta ondoren, Zumaiako Futbol Taldea (73).


Irudia 9. Lizentzia kopurua kirol modalitatea eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Zumaian dauden 13 kirol modalitateetatik 11an parte hartzen dute emakumeek, baina modalitate bakoitzeko kopuruak ikusita, aniztasuna ez da horren handia.


Irudia 10. Emakumeen lizentzia kopuruaren banaketa



ITURRIA: Norberak egina

Gizonen kasuan, aldiz, modalitate guztietan parte hartzen dute eta aniztasuna handiagoa da.

Irudia 11. Gizonen lizentzia kopuruaren banaketa



ITURRIA: Norberak egina

Datuek erakusten duten bezala, Pulpo Kirol Elkarteak eta Zumaiaiko Futbol Taldeak dute emakumeen lizentzia kopuru handiena, baina kategoriak aztertzen hasita eta gizonen taldeekin konparatuz ezberdintasunak ikus daitezke talde kopuruan.

Taula 10. Katgoria arteko talde kopuruaren arteko konparaketa

	Infantilak			Kadeteak			Jubenilak			Seniorrak		
	E	G	T	E	G	T	E	G	T	E	G	T
Pulpo Kirol elkarteak	4	2	6	3	2	5	0	1	1	1	2	3
Zumaiaiko Futbol Taldea	1	2	3	1	2	3	0	2	2	1	1	2

ITURRIA: Norberak egina

Aipatzekoa da jubenil kategorian talderik ez egotea. Hasierako kategorietan taldeak badaude eta jokalaria kopurua ere handia da, baina behin jubenil kategoriara iritsita beherakada handia dago.

Infantilen eta kadeteen kasuan, talde batzuk Eskola Kirolaren barruan ematen dute izena eta beste batzuk federazioan, parte hartzen duten lehiaketaren kategoriaren


arabera. Hala ere, guztiek parte hartzen dute lehiaketetan eta ondorioz, ez da bereizketarik egin.

Zumaiako Futbol Taldean, kategoria guztietan gizonen talde gehiago daude. Baina aipatzekoa da, aldiz, infantil eta kadete kategorietan neska talde gehiago daudela Pulpo Kirol Elkartean. Hortik aurrera, alderantziz gertatzen da, gizonen talde gehiago daude.

3.3.2. Elkartetako zuzendaritzak

Emakumeek kirol elkarteetako zuzendaritzetan dute parte hartzea oso baxua da, kirol modalitateetan duten parte hartzea baino txikiagoa. Zuzendaritzetan dauden emakumeek %16a osatzen dute eta gizonek, aldiz, %84a.

Irudia 12. Zuzendaritzetako ehunekoak sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Zumaiako Kirol elkarte guztietako zuzendaritzetan 92 pertsona daude guztira, 15 emakume eta 77 gizon:


Taula 11. Kirol elkarteetako zuzendaritzen osaketa

ELKARTEA	MODALITATEA	ZUZENDARIAK		
		EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Zumaiako Olarru-Sub	Urpekaritza	0	7	7
Zumaiako Kirol Elkartea	Pilota	0	5	5
Inda Mendi Bazkuna	Mendia	3	4	7
Anade Ehiz eta Arrantza Elkartea	Ehiza eta Arrantza	1	10	11
Zumaiako Triatloi Taldea	Triatloia	1	2	3
Zumaiako Telmo Deun Arraun Elkartea	Arrauna	1	7	8
Zumaiako Txirrindulari Elkartea	Txirrindularitza	2	8	10
Zumaiako Futbol Taldea	Futbola	1	9	10
Pulpo Kirol Elkartea	Eskubaloia	1	4	5
Zumaiako Itzurun Surf Kirol Elkartea	Surfa	3	8	11
Itsas Gain Kirol Elkartea	Piragua	2	6	8
San Telmo Bela Elkartea	Bela	0	5	5
Zumaia Cuban Boxing	Boxeoa	0	2	2
GUZTIRA		15	77	92

ITURRIA: Norberak egina

Kirol elkarte guztietan ikus daitekeenez, zuzendaritza guztietan gizon kopurua handiagoa da, ez dago zuzendaritarik emakume kopurua handiagoa dena.

Irudia 13. Zuzendaritza bakoitzeko kopuruak sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

13 elkarteetatik 4tan gizonak soilik osatzen dituzte zuzendaritzak. Zuzendaritzan pertsona gehien dituen elkarte Zumaiako Itzurun Surf Elkarte da (11). Oregatuena, aldiz, Inda Mendi Bazkuna da, 3 emakume eta 4 gizonak osatzen baitute zuzendaritza.

Gizonez osatutako zuzendaritzak 4 bakarrik badira ere, gainontzeko zuzendaritza gehienetan emakume bat edo bik parte hartzen dute bertan, Zumaiako Itzurun Surf Elkartean eta Inda Mendi Bazkunan soilik daude gehiago (3).

Emakumeek betetzen dituzten funtzioak aztertuz, gehienak idazkari lanak egiten dituzte edota sail edo kategoria bateko arduradunak dira. Elkarte batzuetan, ordea, lanak gehiago banatzen dira eta emakumeak ere zuzendaritzetako arduretan lehen lerroan daude.

Ondorioz, emakumeek zuzendaritzetan duten presentzia oso txikia da oraindik. Hala ere, daudenek elkarte horietan emakumeen parte hartzea bultzatu eta zuzendaritzetan ere emakume gehiago egotearen garrantzia azpimarratzeko balio dezakete.

3.3.3. Emakumeen kirol egoerari buruzko pertzepzioak

Zumaian kirol elkarte asko daude eta ondorioz, kirol aukera zabala dago. Kirol batetik bestera ezberdintasun handiak daude emakumeen parte hartzean. Kirol modalitate batzuk indar handia dute eta kirolari gehiago dituzte beraien elkarteetan. Emakumeak ere gehiago dira elkarte horietan, hala nola, eskubaloia, futbola, arraunean eta ondoren, piraguan.

Eskola Kirolak horretan eragina duela aipatzen da. Eskola Kirolean egiten diren jarduerak ondorengo kirol modalitate aukeraketan eragiten duela ikusten da. Ondorioz, behin kirol modalitate bat aukeratzean nagusiki egiten diren horietara jotzen dela aipatzen da, Eskola Kirolaren jarraipen gisa.

Bestalde, bakarkako kirolak indar gutxiago izatea kirol modalitate hauen ezaugarrien ondorio dela aipatu da. Bakarkako kirolean jarraikortasuna lortzea zailagoa dela aipatzen da, esfortzu handiagoa egin behar da. Taldekako kirolean entrenamenduak taldean izaten dira eta lagunartean esfortzua gutxitu egin daiteke.

Gainera, Zumaian dauden bakarkako kirol modalitate gehienak aire librean ala uretan egiten dira eta horrek, askoz gehiago zailtzen du parte hartzea. Horrez gain, bakarkako kiroleko elkarte gehienetan ez dago entrenamendu finkorik, norberak bere kabuz entrenatzen du. Honek ere eragina izan dezake.

Kirol modalitateen inguruan aipatu diren zenbait puntu azaltzen dira jarraian:

- “Taldea kirolean lagunekin zaude eta galdu edo irabazi taldean egiten da.”
- “Errazagoa da taldeko kirolean parte hartzea, bakarkakoa gogorragoa da. Inguruko laguntza ere handiagoa izan behar da aurrera jarraitzeko”
- “Entrenamendu finkoak eta taldean izatean laguntza gehiago daukazu eta bakarkako kirolean ere horrek lagunduko luke”
- “Neskek nahiago dugu lagun artean egin, taldean, eta ez bakarka”
- “Bakarkako kirol askotan baliabideak ez daude edo materiala garestia da”
- “Lehiatzeko orduan ere, bakarka, azkena geratzen bazara zu geratzen zara azkena. Taldea, aldiz, talde guztiak irabazi edo galtzen du”.

Orokorrean, edozein kirol elkarteetan parte hartzeko zailtasunik ez dago, Zumaiako kirol elkarte denak mistoak dira eta gizon zein emakumeen parte hartzea bilatzen dute. Zailtasunak ondoren datoz. Alde batetik, errendimenduko kirolak eta lehiaketa batean parte hartzeak eskatzen duen konpromiso maila aipatu dute. Asteazken zehar entrenamenduak eta asteburuko partiduak daude eta horrek denbora eta konpromiso bat eskatzen du. Gainera, taldeko kirolean taldekideekiko hartzen duzun konpromisoa ere gehitzen da.

Bestetik, elkarte barruan emakumeen kirolak gizonezkoenak baino garrantzia gutxiago duela aipatzen da. Orokorrean, instalazio egokiak daude eta alde horretatik ez dago ezberdintasunik, baina materialen, ordutegien eta abarren banaketan ezberdintasunak daude batzuen ustez eta lehentasuna mutilek izaten dute. Ondoren, emakumeek aipatu dituzten ezberdintasunak azaltzen dira:

- “Mutilen kirolari garrantzia gehiago ematen zaio. Emakumeak bigarren maila baten gaude”.
- “Material eta instalazio aldetik, ez dago ezberdintasunik. Baina ordutegiak aukeratzekoak gizonen dute lehentasuna”.

Kirola egitearen helburuak ere garrantzia izan dezake zailtasun horietan. Errendimenduko kirolean parte hartzen duten emakumeen helburuak nagusiki ondo pasatzea eta lagun artean egotea direla aipatu dute, kirola egiteko aitzakia dela askorentzat. Beste batzuk, lehiatzeko helburuarekin egiten dute. Hala ere, gehienek lehiatzeari garrantzi gutxiago ematen diotela uste dute. Honek, kirol uztean eragina izan dezakeela aipatzen da.

Kirol uztearen arrazoiak sakonduz, adinak eragina duela ikusten da. Adin batetik aurrera, 16-18 urtetik aurrera, emakume askok uzten dute errendimenduko kirola eta adin horretan igartzen da hutsunerik handiena. Hainbat faktore nabarmendu dituzte eztabaida taldeko eta elkarrizketatutako kideek. Alde batetik, errendimenduko kirolak eskatzen duen konpromisoa aipatu dute. Konpromisoari lotuta, kirola egitearen helburua dago. Ondo pasatzeko edo lagun artean egoteko helburua izatean, konpromisoa handiegia da eta utzi egiten da. Bestetik, ikasketak ere faktore garrantzitsua dira. Adin horretatik aurrera, ikasketek garrantzi handiagoa hartzen dute. Gizonezkoetan ere ikasketek garrantzia dute, baina kirola egiteko denbora ere hartzen dutela ikusten da. Egoera horretan, inguruak eragina duela nabarmendu dute. Familiak egiten duen presioa ez da berdina izaten emakume edo gizonetan.

Ondoren, parte hartzea eta kirol uztearekin lotuta aipatu diren hainbat ideia azaltzen dira:

- “Neskek badakite ezingo dutela kirolek bizi eta beste modu batean bizitzen dute. Mutiletan ere oso zaila da, baina posible da. Nesketan ezinezkoa da ”.
- “Adin batetik aurrera, nahiago dugu gure denbora librean beste zerbaitetan pasa. Kirola egitearen helburua ondo pasatzea zen eta orduan errazago uzten dugu”.

- “Ikasketei garrantzia handia ematen diegu. Mutilek ere bai, baina kirola ez dute alde batera uzten”.
- “Gurasoek ere eragina dute. Neskei gehiago eskatzen diete ikasketetara zentratzeko”.
- “Neskek ez diogu lehiatzeari horrenbeste garrantzia ematen. Beste helburu batzuk ditugu. Mutilak , berriz, lehiakorrakoak dira”.

Aipatutako guztia estereotipoekin lotuta dagoela ikusten da. Gizon eta emakumeen arteko banaketa egin eta genero bakoitzari ezartzen zaizkion baloreek errendimenduko kirolean eragiten dute. Orokorrean, errendimenduko kirolak barnebiltzen dituen baloreak gizonen estereotipoekin lotuta doaz eta horrek emakumeen parte hartzea zailtzen du, bai kirolarien beraien helburuen ondorioz, baina baita kanpotik eta inguruak emakumeen kirolari ematen dioten garrantziaren ondorioz ere.

3.4. Aisialdiko kirola

Aisialdiko kirola Kirolaren Euskal Planak honela definitzen du: “kirolariak egiten duen huraxe hainbat arlotan dituen premiak asetzeko: aisia, olgeta, estetika edota osasuna, alde batera utzita jarduera kirol-esparru antolatuetan, lehiaketan, modu arautuan egiten den ala ez...bizitza osasuntsuari loturik dago”.


Zumaiian aisialdiko kirola egiteko aukera ezberdinak daude, ibiltzera joan, korrika egin, ikastaroetara joan, etab. Baina aukerarik nagusiena kiroldegian abonatzeko da.

3.4.1. Abonatuak

Zumaiako kiroldegiko abonatuak bertan eskaintzen diren ikastaroetan parte hartu dezakete edota kiroldegiko espazio librean erabili.

Gaur egun 3199 abonatu daude, Zumaiako biztanleria osoaren %33a gutxi gora behera. Kopuru horretatik, 1659 gizonenak dira eta 1540 emakumeenak, abonatuaren %52 eta %48a hurrenez hurren. Abonatu kopurua nahiko parekatua da emakume eta gizonen artean.


Irudia 14. Abonatu kopurua sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Adin tarteei erreparatzen badiegu, adin tarte guztietan gizonezkoak gehiago dira emakumezkoak baino, 0-4 urte bitartekoak salbu. Kiroldegian adin tarteak banatzeko modu bat dute eta adin tarte bakoitzean abonuairen prezioa ezberdinak dira. Honakoak dira adin tarteak: hartxoak (0-4), haurrak (4-13), gazteak (14-21), helduak (22-64) eta nagusiak (65<).

Irudia 15. Abonatu kopurua adina eta sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egin

Orokorrean, adin tarte gehienetan gizonezkoen abonua gehiago badira ere, aldea ez da oso handia. Adin tarte guztietan emakume zein gizonezkoen abonua kopuruak oso antzekoak dira. 22-64 adin tartean dago abonua kopuru handiena, baina proportzioan 4-13 adin tartean abonua kopuru gehiago daude. 22-64 adin tarte aztertuz, 32-52 urte bitartean daude abonua gehien. Azkenik, 65 urtetik gorako gehienak 64-74 urte bitarteko pertsonak dira. Adin horretatik aurrera oso abonua gutxi daude.

Abonatuez gain, ordea, 15 eguneko edo hilabeteko bonua egiteko aukera ere badago. Horrela, epealdi horretan kiroldegiko instalazioak erabiltzeko aukera dute herritarrek. Kiroldegia erabiltzen duten pertsonen kopurua handitu egiten du aukera honek. Hala ere, bonua epealdia ordaintzen direnez, oso zaila da kopurua kalkulatzeko. Beraz, datu zehatzik ez badago ere, abonua kopuru osoaz gain, kiroldegia erabiltzen duten herritar gehiago badaudela azpimarratu behar da.

3.4.2. ZKP eskaintzen dituen jarduerak


Kiroldegian 3 hilabeteka egiten da jardueren eskaintza. Alde batetik, neguko eskaintza hiru alditan banatzen da, iraila-abendua, urtarrila-martxo eta apirila-ekaina. Bestalde, udarako eskaintza berezia ere egiten da, uztaila eta abuztuan.

2015eko Neguko eskaintzari dagokionez, guztira 769 pertsonek hartu dute parte irailetik abendura bitarte, 691 emakumek eta 78 gizonak.

Orokorrean, ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen kopurua txikia da abonatu kopuruarekin alderatuz. Abonatu kopuruaren %24ak hartzen du parte ikastaroetan. Abonurik ez duten pertsonak ere ikastaroetan parte hartzeko aukera dute, baina garestiagoa denez, parte hartzaile ia denak abonatuak dira. Bestalde, posible da pertsona batek jarduera batean baino gehiagotan parte hartzea. Horrez gain, zenbait jardueretan eskaria eskaintza baino handiagoa da eta jendea parte hartzeko aukerarik gabe geratzen da.

Parte hartzea sexuaren arabera aztertuta, aldea oso handia da. Parte hartzaileen %90a emakumea da eta %10a bakarrik da gizonak.

Irudia 16. Abonatuak eta parte hartzea sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Emakumeen kasuan, abonatuak %45ak hartzen du parte eskaintako jardueretan, ia erdiak. Gizonezkoen kasua, aldiz, oso bestelakoa da, abonatuak %5ak soilik hartzen baitu parte. Emakumeek ikastaroetan parte hartzeko ohitura gehiago dutela erakusten dute datu hauek. Gizonek, aldiz, gehiago erabiltzen dituzte kiroldegiko espazio libreak.

Negu honetan 13 jarduera eskaini dira eta horietatik 9 atera dira aurrera: cycling, crossfit, aerobic, GAP, pilates, Yoga, jump, ZUMBA eta igeriketa (hobekuntza, entrenamendua, hastapena eta erdi maila).

Hauek dira eskaini diren neguko ikastaroak eta bertan izan den parte hartzea:

Taula 12. Kiroldegiak eskaintako jarduerak eta partaidetza

JARDUERA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
Cycling	96	35	131
Zumba	131	4	135
Pilates	55	5	60
Jump	29	1	30
Aerobic	16	0	16
Yoga	9	4	13
Crossfit	5	11	16
GAP	12	0	12
Igeriketa	38	18	56
GUZTIRA	691	78	769

*Neguko eskaintza: 2015eko Iraila-Abendua

ITURRIA: Norberak egin

Udako eskaintzari dagokionez, egiten den eskaintza ezberdina da. Kasu honetan, haurren eskaintza handiagoa da, Eskola Kirolaren dinamikaren barruan. Helduen kasuan, eskaintza txikiagoa da. Kiroldegian bertan egiten diren jardueraz gain, kirol elkarteekin elkarlanean uretako jarduerak ere eskaintzen dira, baina gehienak hurrei bideratuta.

Hauek dira udan helduei eskainitako jardueren parte hartze datuak:

Taula 13. Udako jardueren eskaintza eta parte hartzea


JARDUERA	EMAKUMEA	GIZONAK	GUZTIRA
Zumba	65	3	68
Pilates	10	0	10
Cycling	12	1	13
Igeriketa	14	1	15
GUZTIRA	101	4	105

ITURRIA: Norberak egina

Ikus daitekeen bezala, udan asko jaisten da parte hartzea eta gehienek neguko jardueretan hartzen dute parte.

Neguko jardueri erreparatuz, cycling eta ZUMBA jardueretan dago parte hartzerik handiena eta parte hartzea aztertuz ezberdintasunak daudela ikusten da, bai jardueren artean baita sexuaren arabera ere.


Irudia 17. Emakumeen parte hartzea



ITURRIA: Norberak egina

ZUMBA da emakumeek gehien egiten duten jarduerak (%34). Honen atzetik, cycling (%25) eta pilates (%14) daude.

Irudia 18. Gizonen parte hartzea




ITURRIA: Norberak egina

Gizonen parte hartzea ezberdina da emakumezkoekin alderatuz. cycling da gizonak gehien egiten duten jardura (%45). Honen atzetik, igeriketa (%23) eta crossfit (%14) daude. Gainerako jardueretan oso gizon gutxi parte hartzen dute.

Emakume eta gizonen parte hartze datuak konparatuz gero, crossfit jardueran soilik da gizonen parte hartzea handiagoa. Gainerako jardura guztietan emakumeen parte hartzea handiagoa da.

Irudia 19. Jardueretako parte hartzea sexuaren arabera



ITURRIA: Norberak egina

Datu hauek, lehen aipatu bezala, gizonek kiroldegiko espazio libreak erabiltzeko ohitura handiagoa dutela erakusten dute. Bestalde, jardueren hautaketa estereotipoen araberakoa dela ere antzematen da gizonen kasuan. Indarra eta erresistentzia lantzen dituzten jarduerak hautatzen dituzte gehien (crossfit edo cycling). Emakumeek aldiz, jarduera guztietan hartzen dute parte, gehiago edo gutxiago.

3.4.3. Kiroldegiko instalazio librean erabilera

Kiroldegiko jardueren eskaintzaz gain, instalazioak libreki erabili daitezke. Ez dago kiroldegiko instalazio librean inguruko datu kuantitatiborik, baina orokorrean gizonek gehiago erabiltzen dituztela ikusten dute patronatuko langileek.

Taula 14. Kiroldegiko instalazio librean erabilera

INSTALAZIOA	ERABILERA
Futbol zelaia	Orokorrean erabilera txikia
Pista estalia	Orokorrean erabilera txikia
Igerilekua	Nahiko erabilera berdindua
Gimnasioa	Gizonezkoek gehiago
Teniseko pista	Orokorrean erabilera txikia
Padeleko pistak	Orokorrean erabilera txikia
Sauna eta hidromasajea	Gizonezkoek zerbait gehiago

ITURRIA: Norberak egina

Emakumeek orokorrean ikastaroetan parte hartzeko ohitura dutela diote Patronatuko kideek. Hala ere, pixkanaka espazio libre gehiago erabiltzen dituzte. Horrez gain, Espazioaren arabera ezberdintasunak daudela ere azpimarratu du.

Igerilekua emakume askok erabiltzen dute, ez dago alde handirik erabileran. Goizetan helduagoak ibiltzen dira eta arratsaldean gazteagoak. Eguerdian, aldiz, jubilatuak eta lana egiten dutenak ibiltzen dira.

Gimnasioan, aldiz, gehiago nabarmentzen da ezberdintasuna. Pixkanaka emakumeek gehiago erabiltzen duten espazioa da, baina oraindik ere aldea dago. Gainera, gimnasio barruan ere, espazioaren erabilera desorekatua da. Emakume gehienek makina aerobikoak erabiltzen dituzte eta ez indar ariketak egiteko makinak.

Sauna eta hidromasaje gelen kasuan, erabilera nahiko antzekoa dela uste dute, baina agina gizonezkoek gehiago erabiltzen dituzte. Ikastaroetarako aldagela gisa ere erabiltzen dira askotan eta jende asko ibiltzen da bertan, baina gizonezkoek sauna eta hidromasajea emakumeek baino zerbait gehiago erabiltzen dituztela uste dute.

Gainerako instalazio libreen erabilera oso txikia dela aipatu dute. Pista estalia eta futbol zelaiaren erabilera handiena elkarteek eta eskolek egiten dute. Ondorioz, ia inork ez ditu erabiltzen instalazioak.

Azkenik, Tenis eta padel pistei dagokionez, aire librean daudenez, eguraldiak erabilera asko mugatzen duela aipatu dute. Ondorioz, jende gutxik erabiltzen ditu. Hala ere, emakume zein gizonek erabiltzen dituzte eta ez dago alde handirik.

3.4.4. Kiroldegitik kanpo egiten diren jarduerak

Kiroldegiko eskaintzaz gain, aukera ezberdin asko daude Zumaian jarduera fisikoa egiteko. Emakume batzuk beraien kabuz egiten dute jarduera fisikoa. Kasu honetan, ohikoena ibiltzera joatea da. Jende askok du ibiltzera joateko ohitura. Eguneko ordu ezberdinetan, lagun taldean edo bakarrik, Zumaiako ibilbide ezberdinak egiten dituzte emakumeek.

Korrika ere ibiltzen dira emakumeak. Batzuk beraien kabuz, bakarka edo lagunekin, irteten dira. Horrez gain, korrika egiterako joateko zaletasuna dutenen artean taldetxoak sortu dira eta astean bi aldiz korrika egitera joateko ordutegiak zehaztuta dituzte. Talde horietan emakumeak ere badaude.

Bestalde, badaude zenbait talde jarduera ezberdinak egiteko aukera eskaintzen dutenak eta emakumeek talde hauen bitartez ere egiten dute jarduera fisikoa. Patinaia taldea dago, esaterako. Talde honek patinetan ibiltzeko aukera eskaintzen du eta astean bitan herri eskola gimnasioan elkartzen dira. Bertan, emakume batzuk parte hartzen dute.

Mendira joateko ohitura ere badute zenbait emakumek. Aurreko atalean aipatu bezala, Inda Mendi Elkarte dago Zumaian, baina elkarte honen helburua aisialdiko eskaintza egitea da eta mendi irteerak antolatzen ditu. Bertan, emakume askok parte

hartzen dute.

Taldeekin jarraituz, Sastraka mendi bizikleta taldea ere badago Zumaian. Mendi bizikletako irteerak antolatzen ditu talde honek. Aipatzekoa da, ordea, ez dagoela emakumerik. Bertako kide batek aipatu du, mendi bizikletan oso emakume gutxi ibiltzen direla orokorrean eta jardueraren ezaugarriak izan daitezkeela horren arrazoia.

Taosa Igeriketa Taldea ere sortu da azken urtean. Zeharkaldiak egiteko asmoa duten jendea dabil bertan, baina denborarekin zabaltzeko asmoa dago. Parte hartzen duten gehienak gizona dira, baina emakume batzuk ere badaude taldean.

Eskalatzeko aukera eskaintzen duen lokala ere badago Zumaian, baina oso emakume gutxi dira bertan parte hartzen dutenak, gehienak gizona dira.

Dantza ere indarra hartzen ari da Astindu Dantza Elkartearen sorrerarekin. Kultur elkarteak da eta bere helburua ez da dantza erakustea, dantza mundua zabaltzea eta ezagutaraztea baizik, baina bide horretan, proiektu eta emanaldi ezberdinak antolatzen dituzte eta bertan, Zumaiako herritarrek dantza egiteko aukera dute. 50 bazkide inguru daude elkartearen eta horietatik gehienak emakumeak direla azpimarratu du elkarteko kide batek. Adin guztietako emakumeek parte hartzen dute bertan. Helburuak oso ezberdinak izan daitezke, baina asko ondo pasatzera eta gorputza mugitzera joaten dira.

Dantzarekin jarraituz, Zumaiako Musika Eskolak dantza ezberdinen ikastaroak antolatzen ditu. Sabel dantza, dantza garaikidea, euskal dantzak, etab. Ikastaro hauetan adin ezberdinetako emakumeek parte hartzen dute.

Jubilatuei zuzendutako eskaintza ere badago herrian. Bi proiektu daude martxan. Alde batetik, Tipi Tapa proiektua dago. Helburua pertsonen ongizate fisiko eta mentala hobetzea da ibilaldi osasungarriak eginez eta taldean bilduz. Modu honetan adinekoen bakardadea saihestu eta lagunartea egiteko modua eskaintzen da. Asteazkenero biltzen dira eta Zumaiako ibilbide ezberdinak egiten dituzte. Emakumeek ere parte hartzen dute programa honetan.

Bestetik, Yoga egiteko aukera ere badute, astean bi egunetan ordubetez. Ikastaro honen helburua Tipi Tapa programaren antzekoa da, pertsonen ongizate fisiko eta

mentala hobetzeko modua baita. Gorputza mugitzeko eta egoera onean mantentzeko modua da. Gainera, lagunarteko giroa ere sortzen da. Kasu honetan, emakumeak dira gehienak.

Azkenik, jarduera ezberdinak eskaintzen dituzten enpresak daude Zumaian. Yoga, Luze, Core Studioa eta Gaindituz enpresak daude.

Eskaintza guzti hauek kirola eta osasunari loturikoak dira. Kirola egiteko aukera eskaintzen dute, baina osasunari loturiko ikuspegi batetik. Helburu orokor horren barruan, bakoitzak bere eskaintza zehatza egiten du eta oso ezberdinak dira. Luze lokalean pilates ematen da, gorputzaren ardura hartu eta norberak bere gorputza modu integral batean ulertu eta landuz. Bertan, emakumeak dira gehiengoa eta batz besteko adina 50 urtekoa da gutxi gorabehera. Beraien gorputza nolakoa den konturatu eta zaindu egin behar dela konturatzen direnean jotzen dute bertara. Kirola egin behar dutela garbi dute, baina lasaiagoak diren jarduerak aukeratzen dituzte.

Yogan ere gorputza gehiago zainduz egiten dira jarduerak, gorputzaren ardura hartuz, baina tonifikazioa eta luzaketak albo batera utzi gabe. Bertan, adin ezberdinetako emakumeek parte hartzen dute, baina 30-40 urte inguruko emakumeak dira gehienak. Osasunera bideratuta egiten dute Yoga, baina baita ondo pasatzeko ere.

Core Studioan pilates, postura lantzeko saioak (reeducción postural global) eta entrenamendu neuromuskular boluntarioak (ENV) egiten dira. Bertan parte hartzen duten gehienak emakumeak dira, 25-75 urte bitartean. Osasunari bideratuta, minak kentzeko joaten dira, baina baita ondo pasa eta prebentzio modu bezala ere,

Gaindituz enpresak ere osasunari loturiko eskaintza egiten du, baina bi arlotara bideratua: errendimendua eta aisialdia. Helburu zehatzak lortzeko preskripzioak (lehiaketa zehatzak, osasunari lotutakoa, etab.), entrenamendu pertsonalak eta talde ezberdinak (mantenu gimnasia, korrikako taldeak, 3.adina, haurrak, etab.) eskaintzen dituzte. 25-40 urte bitarteko emakumeak dituzte gehienbat. Emakumeek egoera fisiko onean egon eta ondo pasatzeko egiten dute gehienbat. Gutxiago dira lehiaketetara jotzen dutenak.

Beraz, kiroldegiko eskaintzaz gain, jarduera ezberdin asko egiten dituzte emakumeek. Batzuk norberaren kabuz eta beste batzuk, talde edo enpresen bitartez. Jardueraren arabera ere ezberdintasun nabarmenak daude. Jardueraren izaeraren arabera, batzuetan, emakumeak dira gehiengoa. Beste batzuetan, txikiagoa da emakumeen parte hartzea.

4. Denboraren antolaketa, jarduera fisikoa eta adina

Jarduera Fisikoak gero eta garrantzia handiagoa du gure gizartean eta emakumea ere garrantzia hortaz jakitun da. Oraindik gizonezkoak gehiago badira ere, emakumea kirol arloan barneratzen ari da eta geroz eta gehiago dira jarduera fisikoaren garrantziaz konturatu eta beraien bizi ohituretan garrantzia ematen dietenak.

Jakina da jarduera fisikoak onurak dakartzala. Elkartasuna eta lankidetzak sustatzen ditu, bizi ohitura osasuntsuak lantzen eta mantentzen laguntzen du, pertsonaren auto-estima eta konfiantza handitzen laguntzen du, etab.

Ikerketan parte hartu duten emakumeek onura horiekin erlazioa duten kontzeptuak aipatu dituzte jarduera fisikoa egitearen helburu gisa. Ondo pasatzea, osasuntsu mantentzea, norbere buruarekin ondo sentitzea eta deskonektatu eta erlaxatzea aipatu dituzte, besteak beste.

Hauek dira helburuen inguruan aipatu dituzten hainbat gako:

- “Iruditzen zait jarduera fisikoa egiteak hobeto sentitzen laguntzen didala”
- “Hobeto sentitzen naiz eta neure burua ezagutzen laguntzen dit.”
- “Fisikoki eta psikologikoki nire energia kanalizatzen laguntzeko tresna da. Norbere garapenerako tresna garrantzitsua da.”
- “Ondo pasatzeko egiten dut. Disfrutatu egiten dut eta erlaxatzen ere laguntzen dit.”

Beraz, jarduera fisikoaren onuraz jakitun da emakumea. Baina garrantziaz jabetzeaz harago, emakumeak gizartean betetzen duen rol sozialak garrantzia handia dauka, gizarteak emakumeei ezartzen baitizkie familiaren zaintza lanak. Horrez gain, lan mundura ere indarrez sartu da emakumea. Beraz, ardura eta espazio ezberdinak kudeatu behar ditu emakumeak bere denbora antolatzerako orduan eta denbora hori ondo antolatzea ezinbestekoa da.

Denboraren antolaketaz hitz egitean, pertsona batek bere eguneko denboraren banaketa egiteko moduz ari gara, banaketa hori egiteko markatzen dituen lehentasunez. Orokorrean, lehentasunak seme-alabak eta lana izaten dira eta beste inork baino lehenago uzten dituzte albo batera aisialdiko jarduerak.

Horren ondorioz, denbora falta aipatu dute emakume askok jarduera fisikoa ez egitearen edo garrantzia txikia ematearen arrazoi gisa. Horrez gain, alferkeria edo ohitura eza ere aipatu dute batzuk. Eztabaidan parte hartutako emakumeek, ordea, denbora ondo antolatzean kokatu dute gakoa. Denbora falta baino, denbora hori antolatzeko modua dela arrazoia.

Hona hemen, denboraren antolaketaren inguruan aipatu dituzten hainbat sententzia eta gako:

- “Denbora ondo antolatzea zaila da, baina oso garrantzitsua da ondo antolatu eta lekua bilatzea.”
- “Garrantzitsua da zuretzako espazio hori beti mantentzea. Horrek besteekin duzun harremanean ere eragina izango baitu.”
- “Emakumeoi gizonei baino gehiago kostatzen zaigu guretzat denbora hartzea, gizonek errazago egiten dute”
- “Garai batean umeak dira, baina gero agian zure gurasoak. Zaintza lanak ez dira amaitzen eta beraz, beti saiatu behar da denbora hori aurkitzen.”
- “Gizartearen presioa ere badago. Zuretzako denbora hartzen baduzu, askotan ama txarraren sententzia izaten duzu. Gizonek duten presioa ez da horren handia.”
- “Familian hitz egiten baduzu, denbora atera dezakezu. Zure buruari garrantzia ematea ezinbestekoa da.”
- “Goizetan umeak oraindik lo zeudela joaten nintzen jarduera fisikoa egitera. Esfortzu handiagoa eskatzen du, oso motibatuta egon behar zara.”

- “Ez da bakarrik gogo gutxi izatea, egin behar duzun esfortzua ere handiagoa da. Gizonek errazago bilatzen dute denbora.”
- “Talde batekin konpromisoa hartzen baldin bada, errazago egiten da. Bestela, errazago uzten da albo batera beste zerbait egiteko.”
- “Gizartea orain hasi da emakumeak ere jarduera fisikoa egin behar duela esaten eta hori bultzatzen.”

Denboraren antolaketa, ordea, adinarekin aldatzen joaten da eta baita jarduera fisikoarekiko lotura ere.

Inkesta eta elkarrizketetan ondorioztatu daitekeenez, Eskola Kirolari jarraiki, errendimenduko kirolera salto egiten dute neska-mutil gehienek eta lehiaketako kirola izaten da urte batzuetan gehienek egiten dutena.

Ondoren, emakume askok kirola egiteari uzten diote 16-18 urte bitarte horietan. Kirol uzte honen arrazoiak ezberdinak izan daitezke: ikasketei garrantzia handiago ematea, kirola harremanetarako tresna gisa ikustea eta kirolari egozten dizkieten helburuak.

Kirol uzte hau etenaldi bat izaten da askoren kasuan eta urte batzuen ondoren, berriz hasten dira. Haurdunaldia da jarduera fisikoa egiteari uzten zaion beste garai bat. Seme-alabak pixkanaka hazten doazen heinean, berriz heltzen zaio jarduera fisikoari.

Adinaren inguruan hainbat aldaketa eta iritzi aipatu dituzte:

- “Nerabezaroan besteen menpekoagoa zara eta harremanek garrantzia oso handia hartzen dute garai honetan. Horregatik, gehienetan talde kirolean parte hartzen dute.”
- “Adinean aurrera joanda, zure barnera gehiago begiratzen hasten zara eta bakarkako jarduera gehiago egiten dira.”
- “Nerabezaroan garrantzia handiago dauka taldeko kirolean egiten dituzun

harremanek. Harremanen mundu horrek garrantzia handiagoa dauka eta ez diote lehiakortasunari garrantzia handia ematen. Harremanak lantzeko beste espazio batzuk sortzen direnean, utzi egiten dute.”

- “Gaztetan ondo pasatzeko egiten duzu eta urteekin osasunean dauzkan onurak ikusten dituzu.”
- “Umeak izatean normalean jarduera fisikoa egiteari uzten diozu. Gero pixkanaka berriz hasten zara.”

Azkenik, egiten den jarduera fisikoa ere ezberdina da. Alde batetik, gizarteko rolak daude. Jarduera batzuk emakumeei lotuta daude eta beste batzuk, gizonei. Bestetik, adinarekin ere aldatu egiten da jarduera fisiko mota. Eta denbora izateak ala ez izateak ere eragina izango du jarduera fisiko mota aukeratzeko orduan.

Guzti honen inguruan ere hainbat aspektu aipatu dituzte eztabaidako parte hartzaileek:

- “Gizonak egiten dutena kanporatzeko joera daukate. Emakumeek, aldiz, barne lana gehiago egiten dute.”
- “Gizonak ez dute beraien buruarekin lanketa egiten. Adinean aurrera doazela hasten dira jarduera mota horiek probatzen, ezintasunak edo mugak dituztela konturatzen direnean. Emakumeak lehenagotik begiratzen dio bere barruari.”
- “Aukera zabala dago. Behin errendimenduko kirola utzita ere, talde ezberdinak daude jarduera fisikoa egiten jarraitzeko. Emakumeek jarduera fisiko mota ezberdin asko egiten dituzte.”
- “Denbora ez izatean ezin duzu errendimenduko talde bateko partaide izan. Beste helburu batzuk badauzkazu, ordea, molda zaitzake.”
- “Konpromiso gehiago edota desplazamendua eskatzen dun jarduera bat ezin duzu egin denbora gutxi baldin badaukazu. Daukazun denbora horretan egin dezakezuna aukeratu behar duzu.”

5. ONDORIOAK

Zumaiako emakumeek kirolarekin duten harremana nahiko ona da. Hala ere, jarduera fisikoa berdintasunean garatu ahal izateko badaude hobetu beharreko zenbait aspektu eta arlo.

Zumaiako Kirol Patronatua

Zumaiako Kirol Patronatua (11 pertsona), 2 emakume eta 9 gizon daude. Bi emakumeak zuzendaritza politikoaren parte dira. Patronatuko langileak, aldiz, gizonak dira biak.

Horrez gain, kiroldegiko langileak daude, guztiak azpikontratatuak (22 pertsona). Aipatzekoa da emakumeak direla kiroldegiko langile gehienak (15 pertsona) eta horietatik 7 monitoreak direla.

Orokorrean, Kirol Patronatuko eta kiroldegiko langileak kontutan hartuz, ordea, emakume gehienak azpikontratatuak direla ikus daiteke, %88. Gizon gehienak, aldiz, Kirol Patronatuko Batzordeko kideak dira, %56.

Zumaiak kirol instalazio asko ditu, baina oraindik ere guztien beharrak asetzeko nahikoa leku ez dago. Horri erantzuna aurkitzeko bi ikastetxeetako instalazioak erabiltzen dira, baina horrek arazoari epe motzeko irtenbidea bakarrik ematen dio, epe luzera arazo hauek kontutan hartu behar dira. Horrez gain, herrian dauden kirol elkarteek beraien jarduna burutzeko udal instalazioak ibiltzen dituzte askok eta horrek herritarren erabilera mugatzen du.

Hala ere, Kirol Patronatuak baditu herria kirola egiteko eremu bilakatzeko proposamenak eta horrek herriko kirol aniztasuna eta ohiturak aberastu ditzake.

Diru-laguntza politikei dagokionez, aurrekontu osoaren %16 bideratzen da diru-laguntzetara eta hortik %53a elkartei bideratzen zaie. Puntuazio sistema baten bitartez egiten da banaketa, baina sistema horren balorazio irizpideak orokorrak dira eta beharrezkoa da irizpide horiek helburu zehatzetara bideratzea, gizonen eta batez ere, emakumeen partaidetza bultzatu eta sustatzeko balio dezaketen irizpideak txertatuz.

Azkenik, Zumaiako Kirol Patronatuak hizkuntza eta irudien erabilpena zaintzeko egiten duen saiakera nabarmentzekoa da.

Eskola Kirola

Eskola Kirola Kirol Kontseiluaren bitartez antolatzen da. Bertan erabaki orokorrak hartzen dira, eskola Kirolaren norabidea markatuko dutenak. Bertan Kirol Patronatuko kideak, bi ikastetxeetako ordezkariak eta Guraso elkarteko kideak biltzen dira. Ondorioz, Eskola Kiroleko eskaintza egituratuta dago eta bi ikastetxeek elkarlanean egiten dute lana, helburu eta norabide berean.

Eskaintzari dagokionez, berdinak da haur guztientzat eta ez da neska-mutilen artean bereizketarik egiten, kasu batean izan ezik. Palaren kasuan, neskentzako eskaintza bakarrik dago, ez dagoelako eskaintza zabalagoa izateko bezain beste begirale. Adinaren arabera dauden ezberdintasunak ere ez dira nabarmenak, alebiren kategorian eskaintza zabalagoa da, jarduera batzuk gehiago eskaintzen dira.

Ikasturte honetan, guztira 474 hurrek eman dute izena, 220 neska eta 254 mutilek. Ia haur guztiek hartzen dute parte eskola Kiroleko programan eta askok jarduera batean baino gehiagotan parte hartzen dute.

Udaran ere Eskola Kirolaren programaren barnean kokatzen den eskaintza osatzen da. Urtean zehar eguraldiarengatik egin ezin diren jarduerak eskaintzen dira gehienbat eta horrela hurrek jarduera ezberdin gehiago probatzeko aukera daukate. Horretarako, elkarte batzuen elkarlana bilatzen da eta kiroldegiak berak ere egiten du eskaintzaren zati bat. Beraz, urte osoan dute jarduerak egiteko aukera.

Azkenik, jardueraren eskaintzaren inguruan iritzi ezberdinak daude. Eskaintza zabala dela eta kirol ezberdin asko probatzeko aukera dagoela diote batzuk. Beste batzuk, ordea, lehiakortasuna bultzatzen dela eta baloidun kirol gehiegi egiten direla uste dute. Horrez gain, sexuaren arabera banatzen dira jarduera guztiak eta guraso askok talde mistoak egiteko eskaria egin dute. Beraz, helburua parte hartzea dela kontutan hartuta, gaia mahai gainean jarri eta talde mistoak osatzearen aukera aztertu behar da, horretarako antolaketa modu egokiena aurkituz. Bestalde, jardueren eskaintza ere aztertu beharreko puntua da, ahalik eta anitzena izateko bideak bilatuz.

Errendimenduko kirola

Guztira 1242 pertsonak Zumaia kirol elkarteren batean federatu lizentzia daukate, 335 emakumek (%27) eta 907 gizonak (%73). Biztanleen %13 bakarrik dago federatuta, baina sexuen arabera aldea handiagoa da, emakumeen %7a dago federatuta eta gizonen %19a.

Zumaian 13 kirol modalitate egiten dira, bakoitza kirol elkarte baten baitan. Elkarte guztiak zabalak dira, emakume zein gizoni irekiak. Hala ere, bi modalitatetan gizonak bakarrik daude (pilota eta boxeoa). Beste guztietan, aldiz, emakume zein gizonak parte hartzen dute, bakarkako nahiz taldekako kirolekin.

Emakumeen federatu lizentzien %84 eskubaloia, futbola, arrauna eta mendia modalitateetan dago. Gizonetan, aldiz, federatu lizentzien %58 osatzen dute lau modalitate hauek. Ondorioz, gizonetan aniztasuna handiagoa dela ikus daiteke. Emakumeek, berriz, taldekako kirolekin parte hartzen dute gehienbat.

Elkarteetako zuzendaritzetan, gehienak gizonak dira (%84) eta emakumeek kirol modalitateetan duten parte hartzea baino txikiagoa dute (%16). Hala ere, 13 kirol elkarteetatik 4tan dira gizonak bakarrik. Gainontzekoetan emakumeen presentzia, txikia bada ere, badago. Beraz, zuzendaritzetan emakumeen parte hartzea handitu beharra dago.

Azkenik, emakumeen pertzepzioen arabera, kirol aukera zabala dago herrian eta elkarteek gizon zein emakumeen parte hartzea bilatzen dute. Hala ere, elkarte barruan ezberdintasunak daudela diote, gizonak garrantzia gehiago dutela. Beraz, elkarteetan emakumeen parte hartzea zaindu eta bultzatu beharra dago.

Aisialdiko kirola

Zumaia kirol elkarteren %33 dago kiroldegiaren abonatu eta abonatu horietatik %48 emakumeena eta %52 gizonena da.

Kiroldegiaren 9 jardura eskaintzen dira eta emakumeak dira ikastaro hauetan parte hartzerik handiena dutenak. Abonatuaren %24ak parte hartzen du ikastaroetan eta

horietatik %90 emakumeak dira. Jarduera guztietan parte hartzen dute emakumeek eta jarduera guztietan gehiengoa dira, crossfit jardueran izan ezik.

Emakumeek ikastaroetan parte hartzeko joera dute eta gehienbat ZUMBA (%34), cycling (%25), pilates (%14) eta igeriketa (%10) jarduerak egiten dituzte. Gizonek, aldiz, kirola modu librean egiteko joera gehiago dute eta ikastaroetan oso gutxi parte hartzen dute. Ikastaroen kasuan, gehienbat cycling (%45), igeriketa (%23) eta crossfit (%14) jarduerak egiten dituzte.

Azkenik, aipatu beharra dago herritar askok jarduera fisikoa beraien kabuz egiten dutela, korrika, ibili edota mendira joanez. Bestalde, talde edo enpresak ere beraien eskaintza egiten dute eta ondorioz, kiroldegiaz gain, jarduera fisikoa bakarka zein taldean egiteko aukera zabala dago.

6. BIBLIOGRAFIA

- Emakunde (2012). *Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa. Kirola*. Gasteiz.
- Fontecha, M. (2006). *Intervención didáctica desde la perspectiva de género en la formación inicial de un grupo de docentes de educación física*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Kultura saila (2003). *Kirolaren Euskal Plana*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Zumaiaiko Kirol Patronatua (2013). *Kirol mahaia. Zumaian kirola etorkizunean*. Zumaia.
- Zumaiaiko Udala (2010). *Zumaiko emakume eta gizonen I. Berdintasun Plana*. Zumaia.
- Zumaiaiko Udala (2014). *Zumaiaiko I. Berdintasun Planaren ebaluazio txostena eta emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II. Plana*. Zumaia.
- Zumaiaiko Udala (2015). *Kirol Azpiegiturak*. www.zumaiakoudala.eus-etik hartuta.